



*Iñaki Azkuna MMBako partaideei diploma ematen*

## **DBSk Multinational MBA programari amaiera eman zion, Iñaki Azkuna bertan zela**

Bilboko alkate Iñaki Azkuna bertan zela egin zen, apirilaren 2an, Deusto Business Schoolen Global Executive MBA Multinational (MMBA) masterreko 1. promozioaren graduazio ekitaldia. Programa hori Adolfo School of Managementekin batera eskaintzen du DBSk eta espainiar eta latinoamerikar enpresa globalen goi mailako zuzendariek parte hartzen dute, Cemex, BBVA, Santander edo Banesto bezalako

enpresetakoek. Martxoaren 28tik apirilaren 1era bitarteko astean izan zen programa horretako azkeneko modulua. Izan ere, MMBako moduluei esker, hainbat kontinente ezagutu daitezke, Bilboz gain, Miamin, Santiagon (Txile) eta Hyderabaden (India) eskaintzen baita programa. Ikastaroaren azken astean, parte hartzaileek iraunkortasunean eta balioa sortzeko era berrietan sakondu zuten, eta, irakasle bisitarien artean, iraunkortasunaren arloko aditurik garrantzitsuenak eduki zituzten: Phil Mirvis eta Andreas Rasche, besteak beste.